

ZERO PAZIENTEA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

ROSA: Zerbait originala? Zerbait originala entzun nahi duzu? (*Une batez pentsatzen du, eta, bat-batean, oihu egiten du*) “Amaitu duuuuuuuuuuuuuuuut!” (*Solaskidea txundituta geratzen da*) Zer, ez zaizu gauza originala iruditzen, ezta? (*Solaskidearen inpresioa berresten du, eta gero azaltzen dio*) Joan den astean nire lagunekin afaltzera joan nintzen -bizitza osoko lagunekin-, eta -oso ondo...-, eta postrearen ondoren une bat jaiki eta komunera joaten naiz -erregeari gutuna idazti behar nion-. Eta ezer ez, komunean nago, eta lagunak korrika datozkit: “Tira, tira, topa!”. Eta nik: “Banoa!!”. Eta haiek: “Tira, azkar ibili! Eta nik: “Banoa, une bat!!”. Eta atea astintzen hasten hasi dira. “Tiraaaaaa, tiraaaaaa! Eta nik: “Amaitu duuuuuuuuuuuuuut!!”

Bada, beno, norbaitek eszena grabatu zuen -ez da arraroa gau osoa bideoak grabatzen eta elkar bidaltzen egon ginen eta-. Hurrengo egunean, goizean, mezutxo bat iristen zait: “Begira hau”. Bainuko bideoa zen, baina amaiera baino ez, “Amaitu duuuuuuuuuuuut!” esaten dudan unea. Bost segundo. Badirudi -suposatzen dut- whatsappetako bat desbideratu egin zela, eta lagun baten lagun bati heldu zitzaioela. Lagun horrek -suposatzen dut- “Amaitu duuuuuuuuuuuut!” hori moztu zuela, eta bere Facebookera edo Instagramera igo zuela, edo ez dut gogoratzen nora. Bideoak, goizeko ordu horretan,... ehun mila bistaratze zituen! Ikaragarria. Bada, hasiera besterik ez zen. Arratsaldean, bideoa Youtuben, Facebooken, Instagramen, Snapchaten, Twitterren, TikToken... zegoen, eta milioika bistaratze zituen. Biharamunean, berdin zion non begiratzen zenuen: aurkitzen zenuen. Telebistako albistegian ere jarri zuten, gurasoen etxean jaten harrapatu ninduen! Eskerrak, ez zitzaidala aurpegia ikusten! Eta orduan konturatzen zara jendea zoratzen hasi dela: kaletik zabilta eta entzuten duzu “Amaitu duuuuuuuuuuuut!”, lanean zaude eta lankideek, bezeroek: “Amaitu duuuuuuuuuuuut!” “Amaitu duuuuuuuuuuuut!” Mundu guztiak, edozer dela ere, “Amaitu duuuuuuuuuuuut!”. Orduan, jendeak bideoak grabatzen hasi zen “Amaitu duuuuuuuuuuuut!” esanez, eta Internetera igotzen, ez hemen, nonahi! Korean, Kanadan, Hego Afrikan, Australian... “Amaitu duuuuuuuuuuuut!” “Amaitu duuuuuuuuuuuut!” (*Doinu desberdinekin*) Eta gero famatuak: Jennifer Lopez, Leonardo di Caprio, Bill Gates -ikusi dituzu?- “Amaitu duuuuuuuuuuuut!” “Amaitu duuuuuuuuuuuut!” Eta onena atzo izan zen,

Ele txera
Munduko zabaldua



ZERO PAZIENTEA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

ikusi zenuen?, Erromako Aita Santuak ez dakit zer ekitaldi ofizialetan joan eta ere bota zuenean: "Amaitu duuuuuuuut!" (*Txundituta dago*) Sinestezina (*Tonua berreskuratzen*) Zerbait originala entzun nahi zenuen? Bada, hor dago -birus-epidemia honen zero pazientea naiz- eta orain zuk, konta iezadazu zerbait, nik "Amaitu duuuuuuuut!".

OHARRAK: Gauza praktiko gisa, esan behar da "Amaitu duuuuuuuut!" intonazio berezia izan beharko lukeela, eta beti antzekoa.

ROSAren solaskidea ezagutu berri duen norbait da. Adibidez, taberna batean, kopen artean, bizpahiru topiko trukatu ondoren, "Kontatu zerbait originala" esaten bukatzen duen morroi tipikoa (topikoa ere bai). **ROSA** da, anonimatua galdu gabe ospetsu egin den biral horretako zero pazientea. Eta pixka bat nazkatuta dago fenomenoarekin, eta pixka bat gaindituta sentitzen da, eta, aldi berean, gertatu zaionarekin harrিতa jarraitzen du. Hau, dena bat-batean hitzez adierazten duen lehen aldia da, eta, nolabait, askatzailea iruditzen zaio.

ALDAKETAK: **ROSA** pixka bat nazkatuta dago, bai. Eta zer gertatzen da asperraldiak haserrealdia eragin badu? Benetako haserrealdia bat. Aztertu egin daiteke. Zer gertatzen da konfesioa autore-harrotasun batek mugitzen badu? Arakatu ere egin daiteke. Zer gertatzen da solaskidea casting-zuzendari bat bada? Ausarta izan daiteke, baina saiatu ere egin daiteke. Edo zer gertatzen da, solaskidea edozein dela ere, **ROSA** ez bada birusaren zero pazientea eta istorioa asmatzen ari bada? Diskurtsoa adierazteko modua zerbait aldatuko litzatekeela uste duzu?

Ele txera
Hondolude zabalduz

